


2015ean, 15 eta 29 urte bitarteko 1045 emakume genero-indarkeriaren biktima izan ziren Euskadin

Indarkeria sexistaren biktima izandako emakume guztien laurdena izan ziren


Azaroaren 25ero ospatzen den **Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna** dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k Segurtasun Sailak emandako datuak aztertu ditu. Datuok emakumeenganako indarkeriaren ingurukoak dira.

Datuen arabera, 2015ean, Euskadin, 3.999 emakume genero-indarkeriaren biktima izan ziren. Haietatik % 26 (1.045) 15 eta 29 urte bitarteko emakumeak ziren. Genero indarkeria jasan duten emakumeen kopuruak behera egin du 2014 eta 2015 artean. Izan ere, azken urte honetan aurrekoan baino 46 emakume gazte gutxiago izan dira indarkeriaren biktima. 30 urte baino gehiago dituztenen artean ere murrizketa berdina izan da, 46 emakume gutxiago izan baitira indarkeriaren biktimak.

Adin-taldean arabera banaketari erreparatuz gero, 2015ean honako hau antzematen dugu: 267 emakume (guztien % 7) 15 eta 19 urte bitartekoak ziren; beste 358 emakume (guztien % 9) 20 eta 24 urte bitartekoak ziren; azkenik, 420 (guztien % 11), 25 eta 29 adin tartekoak ziren.



Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen tasek (adin-talde bereko 1000 emakumeko kalkulatuak) ezberdintasun nabariak agertzen dituzte emakume gazteen eta 30 urtetik gorakoen artean (% 7,3 eta % 3,5 hurrenez hurren). Lurralde historikoen arabera Araban ematen da alderik sakonena. Lurralde honetan ere ematen dira emakumeen aurkako indarkeriaren tasarik altuenak.



Emakumeen aurkako indarkeriaren tasen bilakaerari jotzen badiogu, zera ikus dezakegu: 15 eta 29 urte bitartekoen tasa pixka bat beheratu dela; aldiz, 30 urte edo gehiagokoen tasak zertxobait igo egin du 2014tik hona. Holan ere, emakume gazteen tasak 30 urtetik gorakoena bikoizten du.



Datuok eta beste hainbat Gazteen Euskal Behatokiaren [Estatistiketan](#) kontsulta daitezke, **Balioak eta jarrerak** atalaren **Emakumeenganako indarkeria** azpitalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak **Beldur Barik** egitasmoa zabaltzen lagundu nahi du. Egitasmo hau Emakundek eta Eudelek sustatzen dute, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Berdinsarea izeneko udal-sarearen baitan.

Egitasmoaren helburua gazteen artean indarkeria sexista prebenitzea da. Programaren osagai nagusienetako bat ikus-entzunezko adierazpen artistikoak saritzen dituen lehiaketa da, 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua. Adierazpen horietan, neskek eta mutilek erakusten dute emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari nola egiten dioten aurre, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, ardurakidetzan eta indarkeria sexistaren gaitzespenean oinarrituta.

Beldur Barik ekimenari buruz gehiago jakin nahi baduzu, jo ezazu bere webgunera <http://www.beldurbarik.org/> edo beren [Facebook](#) eta [Twitter](#) profiletara.